# M. Axun Larrañaga

**TKNIKAn, Urratsbat** proiektuaren arduraduna
Responsable del proyecto **Urratsbat en TKNIKA**

## "Guztiok egiten dugu Euskadi ekintzailearen aldeko apustua"

**Elgoibarko Lanbide Heziketako Zentroan irakaskuntzan ia hogeita hamar urte daramatzan M. Axun Larrañagak, orain, Euskadiko Lanbide Heziketako zentroetan ekintzailetza sustatzeko zereginetan ari da buru-belarri, ikasleei kultura ekintzailea irakasten. TKNIKAren bidez egiten du, duela urtebete baino gehiago sortutako eta orain arte lortutako emaitza ezin hobeek bermatutako Lanbide Heziketarako Zentrotik, alegia. Berak zuzentzen duen Urratsbat programari esker, Lanbide Heziketako ikasleek, Euskadin, azken urteetan, berrogei enpresa berri baino gehiago sortu dituzte.**

## "Todos apostamos por una Euskadi emprendedora"

**Tras casi treinta años dedicada a la enseñanza en el Centro de Formación Profesional de Elgoibar, M. Axun Larrañaga desarrolla ahora ilusionada la tarea de fomentar el emprendizaje en los centros de Formación Profesional de Euskadi, ayudando a inculcar a los alumnos una cultura emprendedora. Lo hace desde TKNIKA, Centro de Innovación para la Formación Profesional creado hace más de un año, y avalada por los excelentes resultados logrados hasta el momento. El programa Urratsbat que dirige ha permitido que los alumnos de Formación Profesional hayan creado en Euskadi en los últimos años más de cuarenta nuevas empresas.**





**– Hasteko, betiko galdera bat: ekintzailea, jaio edo egin egiten da?**

– Zalantzarik gabe, ekintzailea egin egiten da. Jakina denez, ekintzaile profila eduki behar da, baina ikasi ere egin daiteke. Finlandian egon berri gara, oso ekintzailea den herrian, eta eskolako etapa guztietan formazio ekintzailea duen programa ezagutu dugu. Ondorio bat atera dugu: ekintzailea egin egiten da, eta hor dago gure zeregina. Hezkuntza zentroen curriculumen baitan ekintzailetzak egon behar duela, eta batez ere, balore ekintzaileak erakutsi behar ditugula izan behar dugu gogoan, hezkuntzako agintariak eta irakasleak konbentzituz.

**– Lanbide Heziketako zentroetan nola susta daiteke ekintzailetza kultura gazteen artean?**

– Zerbaiti ekitea hastea da, ausartzea, arriskatzea... Lagunekin jolas bat edo txango bat antolatzetik, negozioa bat sortzera. Gure ustez, ekitea ez da enpresa sortzea soilik, ekintzailetzaz hitz egin nahi dugu. Ikasle ekintzaileak formatu behar ditugu; batzuek beren enpresa sortuko dute, eta besteak beren lanpostuetan izango dira ekintzaileak. Euskadiko ikasleak ekintzaileak izatea lortzen badugu, enpresak irabazten aterako dira; izan ere, pertsona horiek negozio unitate berriak sustatzeko gai izango dira lehengoen baitan. Ekitea jarrera bat da: pertsona ekintzailea bere ideiak aurrera ateratzen saiatzen da, bera bakarrik edo besteen laguntzarekin; eta sustatzea gustatuko litzaizkigukeen baloreak eduki behar ditu; ekintzaileak sortzailea, ausarta izan behar du, iniziatiba eta ilusioa duena, eta ideia batean sinesten duena. Porrota ere hor dago, noski, baina gauza positibo gisa hartu behar da. Proiektu bat atera ez arren, ikasteko aukera ematen digu. Zerbaitetan parte hartzen duzunean, ekiten ari zara, eta ekitea beharrezkoa da etengabe aldatzen ari den eta malgua den gizartean. Ekitea erabakitzea da. Guztiok gara ekintzaileak eta erabakitzen dugun bakoitzean erabakitzen dugu. Ekitea erabakitzen duen oro da ekintzailea.

**– TKNIKAn Lanbide Heziketan berritzeko erronka dute. Ekitea zeregin horrekin lotuta al dago?**

– TKNIKAren helburua berrikuntzaren zentro aitzindaria izatea da, eta berrikuntza hori ikaskuntzan ere barneratzen da. Euskadi mailan metodologia berritzailea ari gara ezartzen; kanpoan erakusten dugunean jendea harritu egiten da. Lanbide Heziketako ikasleek enpresa sortzeko aukera ikus dezaten lortzea berritzailea da guztiz.

TKNIKA garatzen ari den teknologia berriak enpresa ideia bihurtzea ere gure helburuen artean dago, baina horretan lan asko dugu oraindik egiteko. Sortzen diren jardueren baitan, teknologia berrikuntzarekin lotutako gero eta enpresa gehiago dugu. TKNIKA garatzen ari den berrikuntza teknologikoak enpresa ideia bihurtzea ere gure asmoa da, baina horretan lan egin behar dugu oraindik. Gure jardueren artean, berrikuntza teknologikoarekin lo-

**"Euskadiko ikasleak ekintzaileak izatea lortzen baldin badugu, enpresak irabazten aterako dira; izan ere, pertsona horiek, lehengoen baitan, negozio unitate berriak sustatzeko gai izango dira"**

**" Si conseguimos que el alumnado de Euskadi sea emprendedor, las empresas saldrán beneficiadas, porque estas personas serán capaces de impulsar nuevas unidades de negocio dentro de las mismas"**

**– Para empezar, una pregunta clásica: el emprendedor, ¿nace o se hace?**

– Estoy convencida de que el emprendedor se hace. Lógicamente hay que tener perfil emprendedor, pero también se puede aprender. Recientemente hemos visitado Finlandia, país con una gran tradición de emprendizaje, y hemos conocido un programa que incluye formación emprendedora en todas las etapas escolares. La conclusión que hemos sacado es que realmente el emprendedor se hace, y ahí está nuestra tarea. Entender que dentro de los currículums de los centros educativos tienen que estar el emprendizaje y sobre todo los valores emprendedores es algo que tenemos que transmitir, convenciendo a las autoridades educativas y, lógicamente, al profesorado.

**– ¿Cómo se puede fomentar, desde los centros de Formación Profesional, una cultura de emprendizaje entre los jóvenes?**

– Emprender es empezar, iniciar algo, atreverse, arriesgarse... Desde organizar un juego o excursión con tus amigos hasta montar un negocio. Nosotros entendemos que emprender no es sólo crear una empresa, queremos hablar del emprendizaje con mayúsculas. Debemos formar alumnos emprendedores; algunos montarán su empresa, y otros serán emprendedores en su puesto de trabajo. Si conseguimos que el alumnado de Euskadi sea emprendedor, las empresas saldrán beneficiadas, porque estas personas serán capaces de impulsar nuevas unidades de negocio dentro de las mismas. Emprender es una actitud: una persona emprendedora se atreve a llevar a cabo sus ideas, por ella misma o con ayuda de otros, y debe tener una serie de valores que son los que nos gustaría fomentar; un emprendedor es creativo, valiente, con iniciativa, ilusión, y cree en una idea. Está claro que existe el fracaso, pero hay que tomarlo en positivo. Aunque un proyecto no salga, nos da la oportunidad de aprender. Cuando participas en algo, ya estás emprendiendo, y emprender es necesario en una sociedad cambiante, flexible… Emprender es decidir. Todos somos personas emprendedoras, y emprendemos cada vez que decidimos. Emprendedor es quien decide serlo.

**– En TKNIKA tienen el reto de innovar en la Formación Profesional. ¿Está el emprendizaje ligado con esta tarea?**

– El objetivo de TKNIKA es ser un centro pionero de innovación, y en esa innovación se incluye también el emprendizaje. Estamos implantando una metodología novedosa a nivel de Euskadi que realmente está asombrando cuando la mostramos fuera. Es innovador conseguir que alumnos de Formación Profesional se planteen la posibilidad de montar una empresa.

También está dentro de nuestro objetivo que las innovaciones tecnológicas que está desarrollando TKNIKA se transformen en ideas empresariales,

**Urratsbat Programa**
**Martxan dauden enpresa kopurua, jardueraren arabera**

**Nº empresas en funcionamiento por actividad**

| | |
|---|---|
| Informatika I Informática | 10 |
| Fabrikazio mekanikoa, elektrizitatea, cad/cam, soldadura I Fabricación mecánica, electricidad, cad-cam, soldadura | 8 |
| Irudia eta soinua Imagen y sonido | 6 |
| Administrazioa, aholkularitza eta ingurumena Administración, asesoría y medio ambiente | 4 |
| Topografia I Topografía | 4 |
| Energia berriztagarriak Energías Renovables | 3 |
| Garbiketa industriala Limpieza Industrial | 1 |
| Arte grafikoak Artes Gráficas | 1 |
| Zurgintza I Carpintería | 1 |

**"Bigarren hezkuntzan, mini-enpresa jardueran parte hartu duten Europako ikasleen artetik %20k lortu dute ikasketak amaitutakoan beren enpresa sortzea"**

**"El 20% de los participantes en actividades de mini-empresa en educación secundaria han llegado a fundar su propia empresa al finalizar los estudios"**

tutako gero eta enpresa gehiago daude. Gipuzkoan, oraintxe bertan, teknologia eta berrikuntza alorreko bi proiektu daude bidean.

**– Negozio ekimena bultzatzea erabakitzen duten gazteei zein motatako laguntza edo babesa eskaintzen die Urratsbat programak? Nola funtzionatzen du programak?**

– 25 zentroko sarea dugu (20 publiko eta 5 kontzertatutakoak); horietan, programa lantzen dugu eta sentsibilizazioa da lehena: Eusko Jaurlaritzaren Lan Sailaren parte hartzearen bidez, zentro bakoitzean pertsona bat dago ekintzailetzan laguntzeko. Beraiek dira sistemaren ardatzak, beraiek merezi dituzte dominak. Beraien zeregina da ikasleak motibatu eta sentsibilizatzea; beraien baitan dago, horrez gain, ikastetxearen azpiegitura eta babesa erabiliz enpresa sortzeko gai direla ikasleei ezagutzera ematea ere. Kanpo aholkularitzen laguntzarekin –Saiolan, Integra,...–, saioak eskaintzen dira ikasgeletan, eta enpresa sortzeko aukera interesatzen zaienei 16 orduko ikastaroa eskaintzen zaie, beren ideia aurreproiektu bihurtuz. Ideia horiek enpresa sarietara aurkezten dira, eta ondoren aztertzen dugu pertsona horiek enpresa sortzeko aukera seriotasunez planteatzera arriskatu nahi duten edo ez. Horrela hasten da Urratsbaten aurreproiektua. Hortik abiatuta, zentroen zuzendaritzak erabakitzen du zein ideia bihurtzen diren proiektu, baliabideen arabera. Une horretatik aurrera, zentroa enpresaren inkubategi bihurtzen da: ekipatutako bulegoa eskaintzen du, proiektua eta prototipoak garatzeko instalazioak eta makinaria bere esku jarriz. Enpresaren jardueran espezialista den irakasle/tutoreak, zentro bakoitzeko dinamizatzailearen babesarekin, martxan jartzerakoan aholkatzen du. Badira hainbat inkubategi proiektu dituzten zentroak; hala eta guztiz ere, gure helburua urtean enpresa bat sustatzea da; neurri handi batean, helburu hori bete egiten da, eta zenbaitetan, baita gainditu ere.

**– LHko zentroetan ekintzailetza sustatzeko, aipatutako Urratsbat proiektuaz gain ba al da LHko zentroetan ekintzailetza sustatzeko beste programarik?**

– Beste zeregin batzuetan ere lanean ari gara; Gipuzkoan hasi dira modu pilotuan eta hurrengo urtean ikastetxe eta erakunde gehiago sartzea espero dugu. Esperientzia berri hori EJE programa da, Valnalon-eko programa, Asturiasko Printzerriaren mendekoa den eta ikasgeletan ekintzailetzaren gainean sentsibilizatzeaz arduratzen den erakunde publikoa; oraingoz, erdi mailako LHko bost zentrotan aplikatu da –Mutriku, Bidasoa, Easo, Bergara eta Zubiri-Manteo–, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Ikasleek fikziozko kooperatibak osatzea da programaren helburua; kooperatiba horiek Estatuan edo Europa mailan ikasle taldeek sustatutako beste batzuekin elkartzen dira, eta produktuen salmentaren prozesu osoa simulatzen da benetako enpresa izango balitz bezala. Horrekin lotuta, Europako Batzordeak emandako datu garrantzitsu bat eman nahi nuke: bigarren hezkuntza, mini-enpresa jardueretan parte hartu dutenen %20k beren enpresa sortzea lortu dute ikasketak amaitu ostean.

pero es algo en lo que aún hay que trabajar. Cada vez tenemos más empresas relacionadas con la innovación tecnológica dentro de las actividades que surgen. En Gipuzkoa ahora mismo hay dos proyectos incubándose de área tecnológica y de innovación.

**– ¿Qué tipo de ayuda o apoyo ofrece el programa Urratsbat a los jóvenes que se decidan a impulsar una iniciativa de negocio? ¿Cómo funciona el programa?**

– Tenemos una red de 25 centros (20 públicos y 5 concertados) en los que estamos trabajando el programa, y lo primero es la sensibilización: a través de la colaboración del Departamento de Trabajo del Gobierno Vasco, en cada centro hay una persona liberada para ayudar al emprendizaje. Ellos son los pilares del sistema, los que tienen que ponerse las medallas. Su tarea es motivar, sensibilizar e informar a los alumnos de que pueden constituir una empresa utilizando la infraestructura y el apoyo del centro. Con la ayuda de asesorías externas –como Saiolan, Integra,...– se ofrecen sesiones en las aulas, y a quienes se plantean la posibilidad de emprender se les imparte un curso de 16 horas, convirtiendo su idea en un pre-proyecto. Esas ideas se presentan a premios empresariales y después estudiamos si esas personas quieran arriesgarse a plantearse más en serio la experiencia empresarial. Así nace el pre-proyecto Urratsbat. A partir de ahí, la dirección de los centros decide qué ideas se convierten en proyectos, en función de sus recursos. Desde ese momento, el centro se convierte en una incubadora de la empresa: proporciona una oficina equipada, poniendo a su disposición instalaciones y maquinaria para desarrollar el proyecto y los prototipos. Un profesor/tutor especialista en la actividad de la empresa, con el apoyo del dinamizador de cada centro, asesora durante la puesta en marcha. Hay centros con varios proyectos en incubación, aunque nuestro objetivo es que impulsen una empresa cada año, meta que en gran medida se está cumpliendo, y en muchos casos superando.

**– ¿Existe algún otro programa, además del mencionado Urratsbat, para impulsar el emprendizaje en los centros de FP?**

– Se están trabajando otras prácticas, que se han iniciado este año en Gipuzkoa a modo piloto y en las que esperamos que el año que viene puedan entrar más centros y entidades. Esta nueva experiencia es el programa EJE, un programa de Valnalon, entidad publica que depende del Principado de Asturias y que se encarga de sensibilizar en emprendizaje en las aulas, y por el momento se ha aplicado en FP grado medio en cinco centros –Mutriku, Bidasoa, Easo, Bergara y Zubiri-Manteo–, con ayuda de la Diputación Foral de Gipuzkoa. El programa consiste en que los alumnos constituyan cooperativas ficticias, que se relacionan con otras impulsadas por grupos de alumnos en el Estado o a nivel europeo, y se simula todo el proceso de venta de productos, etc. funcionando como si fuese una empresa real. En relación a esto, quiero aportar un dato importante, facilitado por la Comisión Europea, que dice que el 20% de los participantes en actividades de mini-

**– Erakundeek ekintzailetza nahikoa sustatzen dutela uste al duzu? Edo oraindik lan asko dago egiteko? Erakundeen arteko laguntza gehiago beharrezkoa dela iruditzen al zaizu?**

– Erakunde askok hartzen du parte ekintzailetzan: Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza, Lan eta Industria Sailen bidez; hiru aldundiek; BBKk; DEMAk; IKASLANek; kanpoko aholkularitza enpresek eta abarrek. Oro har, erakundeak oso sentsibilizatuta daude gai honekin, baina beharrezkoa da guztien arteko komunikazio eta koordinazio ona. Sentsibilizaziorako baliabideak inbertitu behar dira; beraz, hezkuntza sistemak ekintzailetza ezarri behar du, batez ere horrekin lotuta dauden baloreak maila guztietan, eta egia da hor ez dugula materialik.

Urratsbat programaren baitan, ekintzaile onei beka bat eskaintzea ere garrantzitsua litzateke; izan ere, diruz ordaindutako praktiken aldeko apustua egiten dute eta lan munduak enpresak sustatzeko baliozkoa den jendea kentzen digute.

**– Zer nolako balorazioa egingo zenuke orain arteko LHko zentroen gainean?**

– 2000/2001 ikasturtean programa hasi zenetik, 45 enpresa sortu dira eta horietatik 38 martxan daude oraindik. Irakaskuntzan, ekintzailetza gero eta gertuago dago. Esaterako, maiatzean, pertsona ekintzailearen eguna ospatu dugu, eta Gipuzkoan 77 zentrok hartu dute parte. Lorpena dinamizatzaile eta irakasleei zor zaie, baina zentroetako zuzendaritza taldeen lidergoa derrigorrezkoa da; proiektuan sinesten dutenak emaitza bikainak ari dira lortzen. Ekintzailetza estrategia planen eta zentroetako urteko planen zati izaten saiatzen gara.

**– Eta azkenik, ekitea al da etorkizuna?**

– Langile ekintzaileak eta pertsona ekintzaileak osatzea da erronka; izan ere, enpresan intra-ekiteko ideia ere hor dago, negozio unitate berriak sortuz, eta hori langileen artean ekintzaileak dituztenek soilik egin ahal izango dute. Guztiok egiten dugu Euskadi ekin-tzaile baten aldeko apustua eta borroka hori erakundeetatik sustatu behar da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzan bada Ekintzailetza Saila, gure gizartean horrek duen garrantziaren erakusle gisa.

**• Urratsbat 04/05 programan parte hartu duten zentroak**

**• Centros participes en el programa urratsbat 04/05**

- IEFPS **MENDIZABALA**
- IES **BIDEBIETA**
- IEFPS **ELORRIETA ERREKAMARI**
- IES **EMILIO CAMPUZANO**
- IEPS **SAN JORGE**
- IEFPS **ATEGORRI-TARTANGA**
- IES **URRTIXE-ZORNOTZA**
- IEFPS **REPELEGA**
- IEFP **MUNGIA**
- IEFPS **NICOLAS LARBURU**
- IEFS **SOMORROSTRO**
- IEFS **LEA ARTIBAI**
- IEFPS **MIGUEL ALTUNA**
- IEFPS **ARMERIA ESKOLA**
- IES **ELGOIBAR**
- IEFPS **TOLOSALDEA**
- IEFPS **USURBIL**
- IEFPS **DON BOSCO**
- IEFPS **BIDASOA**
- IEFP **AZKOITIA**
- IEFP **ZUBIRI MANTEO**
- IEFP **EASO**
- IEFP **UGLE**
- IEFP **MONDRAGON**
- IEFP **IRUNGO LASALLE**



empresa en educación secundaria, han llegado a fundar su propia empresa al finalizar los estudios.

**– ¿Cree que desde las instituciones se impulsa suficientemente el emprendizaje, o aún queda trabajo por hacer? ¿Ve necesaria mayor colaboración interinstitucional para ello?**

– Hay muchas instituciones implicadas con el emprendizaje: el Gobierno Vasco, a través de los Departamentos de Educación, Trabajo e Industria, las tres Diputaciones, BBK, DEMA, IKASLAN, las asesorías externas, etc. En general, las instituciones son muy sensibles al tema, pero es necesaria una buena comunicación y coordinación entre todos. Hay que invertir recursos para la sensibilización, por lo que es necesario que el sistema educativo implante el emprendizaje, sobre todo los valores que están relacionados con el mismo, a todos los niveles, y es verdad que ahí carecemos de material.

También sería importante, dentro del programa Urratsbat, poder incentivar a los buenos emprendedores con una beca, porque normalmente optan a prácticas remuneradas, por lo que el mundo laboral nos quita esta gente válida para impulsar empresas.

**– ¿Cuál es su valoración respecto al emprendizaje en los centros de FP hasta el momento?**

– Desde que se inició el programa, en el curso 2000/2001, se han constituido 45 empresas, de las cuales 38 están en funcionamiento. El emprendizaje está cada vez más presente en la enseñanza. Por ejemplo, en mayo hemos celebrado el día de la persona emprendedora, con participación de 77 centros de Gipuzkoa. Los logros se deben a los dinamizadores y profesores, pero el liderazgo de los equipos directivos de los centros es crucial, los que están convencidos del proyecto están obteniendo excelentes resultados. Nosotros intentamos que el emprendizaje forme parte de los planes estratégicos y de los planes anuales de los centros.

**– Y por último, el futuro... ¿está en emprender?**

– El reto está en formar trabajadores emprendedores y personas emprendedoras, ya que también existe la idea de intra-emprender en la empresa, creando nuevas unidades de negocio, y eso sólo podrán hacerlo aquellas que cuenten con emprendedores en sus plantillas. Todos apostamos por una Euskadi emprendedora, y esta es una batalla que hay que liderar desde las instituciones. De hecho, ya existe un Departamento de Emprendizaje en el Gobierno Vasco, como muestra de creciente importancia del mismo en nuestra sociedad.